

Etorkin taldea euskara ikasten

Apirilaren 17an herriko 17 etorkinek euskara ikasten hasteko pausua eman zuen. Esperanza Latina elkarteke kide horiek gure hizkuntzaren oinarritzko ezaguerak barneratzeko ilusioz ekin zioten 60 orduko ikastaroari: agurrak, erosketak egiteko esamolde batzuk, familia izenak... euskaraz nola esaten diren azaldu zaizkie. Jakintza minimo hauek jasotzeko, eta gure herriko partaide sentitzeko gogoz aurkitu genituen ikasleak. /4-5



Ikastetxeetako ikasleek ederki garbitu zituzten errekek

Giro onean, *Zaindu maite duzun ura* ekimenaren ekintza nagusia burutu zen



Lan ederra egin zuten ikastetxeetako gaztetxoek erreka garbiketean.

Lasarte-Oriako Udalak URA ur agentziaren laguntzaz, antolatatu duen Aste Berdearen ekintza nagusia burutu zen ostiralean herrian, erreka garbiketa, alegia.

Herriko ikastetxeetako 120 gaztetxok parte hartu zuen Oztaran eta Basotxo erreka garbitzeko ahaleginetan.

Oztaran eta Basotxo

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko LH5 eta LH6 mailako gazteak Plazao-lako bidetik Oztaran erreka hurbildu ziren. Mailaka banatu eta erreka zati desberdinetan ibili ziren garbiketean.

Landaberri ikastolako LH5 mailako ikasleak, berriz, Basotxo erreka garbitu zuten. Hiru talde egin eta lehenen-

goa, Aduriz ingurutik sartu zen bailaran eta beste biak, "Villa M^a Angeles" inguruan eta hilerri aldean aritu ziren.

Informazio puntua

Goizeko erreka-garbiketaren ondoren, arratsaldean, Informazio Puntua jarri zen Dorre Parkean.

Bertan, erreka-garbiketaren bildutako hondakinak, beira, plastikoa, metalak... erakusgai jarri ziren. Horretaz gain, uraren inguruan hiritarren proposamenak bildu zituzten.

Ekimen hau *Zaindu maite duzun ura* ingurumen kanpainaren barruan kokatzen da. Era honetara, larunbatean ospatzen zen Mundu mailako Ingurumen Egunarekin bat egin nahi zuen Udalak. •

Emakumezkoen minbizia aztergai

Emakume ugari bildu ziren ostegunean Katxalin elkarteak Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretoan. Katxalin elkarte-ko lehendakaria den Txaro Beobidek elkarteari buruz hitz batzuk esan eta Donostiako Institutu Onkologikoko M^a Jesus Mitxelena doktoareari eman zion hitza. Honek, bularretako azterketa, tratamendua eta prebentzioari buruz hitz egingo zuen. Diagnosi goiztiarrak duen garrantzia azpimarratu eta gaur egun, minbizi honen heriotza-tasa txikia dela ere adierazi zuen. Amaieran, minbizi ginekologikoa ekiditeko, higie-ne aholkuak ematen dituen bideo bat ikusi zuten. •



IRITZIA /2

Unai Muñoa eta Amaia Agirre generoari buruz hausnarrean

EUSKARA /3

Mintzodromoa Lasarte-Oriara iritsiko da ostiralean

KULTURA /6

Gotzon Huegun eskultoreak saria lortu du La Bressen



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka



<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazioa (Erdi Maila) • Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila) • Telekomunikazio instalazioak (Erdi Maila) <ul style="list-style-type: none"> • Fabrikazio mekanikako diseinua • Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila) 	<p>HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazioko langilea • Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarritzko zaintzetako laguntzailea
---	--

AURREMATRIKULA EPEA MAIATZAREN 31tik EKAINAREN 11ra

A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120 HERNANI
K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI

institutua@hernanibhi.com
www.hernanibhi.com





Generoa bertsogintzan

Unai Muñoa eta Amaia Agirre bertsolaritza irakasleek neska-mutilen edota emakume-gizonezkoen arteko aldeak eta generoari buruz duten ikuspegia jorratu dute elkarren artean trukatu dituzten posta elektronikoetan



Unai Muñoa Amaia Agirre

Konpañera, dena ondo?

Bazekinat ni ez naizela aditua generoaren gaietan, baina aritua bai, eta bertsokak zein nire garapen pertsonalak emandakoari esker zer edo zer esango ninake.

Bertsokak gizonen mundua izan dun oso gutxi arte, eremu publikoa eta kalea gizonena izan delako. Emakumeak, aldiz, eremu pribatuan mugitu behar izan zituan, etxean, intimitatean. (Elizak zer edo zer hausnartu beharko liken horren gainean). Ez ditun horrenbeste urte pasa emakumeek bozkatu ezin zutenetik edo taberna batean bakarrik sartzea pentsaizina zenetik. Bai, asko aldatu gaitun! Baina nahikoa bai?

Gai honi bi alde ikusten zizkionat: Bata politikoa eta soziala, eta bestea gizon-emakume bakoitzaren izatea eta esperientzia. Zeren, generoa norberak daraman karga dun, gizon zein emakume izan, gure izaera eta jarrera erabat baldintzatzen duena. Politikoki, berriz, bide luzea zagon egiteko, eta kalean entzunarazi behar ditugu berdintasunaren aldarrikapena.

Ezin dizkinagu begiak itxi beren emozioetan zein frustrazioetan kabitzen ez diren gixonek bikotea egurtzen edo hiltzen dutenean. Edo, lan munduan, ikastetxeetan, parrandana... hainbat gehiegikeria gertatzen

direnean. Hau onartuta, ordea, nik nahiago dinat norberarengan duen eraginaz aritu, besteak beste, pertsona bakarraren aldaketak inguru oso bat baldintzatzen duelako, baldintzatu eta aldatu.

Femeninoa eta maskulinoa. Gizakiok asmatutako bi kontzeptu. Bi bandotan bereizten gaituztenak. Haiek eta gu. Haiek laguntza eskatzen zioten guri. Guk haien arazoa dela uste din. Denok barneratzen dizkinagu rol desberdinak, eta geure egin. Askotan, pentsatu ere egin gabe bestela izan daitekeela. Baina mundua bizitzeko eta ulertzeko hainbat modu zauden.

Niri gizonkeriak zer suposatu didan sumatzen dinat orain, eta badizkin oso alde mingarriak. Adibidez, zergatik gizonetzko mordo batek ez dugu negarrik egiten apenas? Arrazoirik ez dugulako? Negar egiteak ez duelako ezertarako balio? Edo, emozioetatik ihes egiten erakutsi digute? -Zer ari haiz negarrez neskatu bat bezala?- Zenbatetan entzun dugu halakorik? Ba, emozioak sentitzen eta bideratzen jakitea ezinbestekoa dun. Goxotasuna, afektua, ahultasuna, sentsibilitatea... Horiek emakumeen kontuak direla pentsatzen dutenek majo sufritu behar diten. •

Aupa, Unai, zer moduz harbat?

Hausnartu egin behar omen duk iredntsi aurretik. Gizaseme askok eta gizarako zenbait erakundek hausnartzeko (t)arterik hartzen ez dutelako, guk ezinbestean irentsi behar ote ditugu digestioa egingaitzak diren jarrerak, hitzak eta bortxak?

Hona hemen Estitxu Eizagirrerren esaldi esanguratsu bat: Jaiotzen garenetik daramagu motxila bat. Motxila atzean eramaten da, ez da ikusten. Ez dugu geuk bete: gurasoek, eskolak, gizarateak... bete digu, eta pisatu egiten du.

Ez zekiat motxila hori husten edo arintzen asmatuko dugun, baina saiatuko gaituk, ezta?

Duela hogeita hamar edo berrogei urte "generoa bertsolaritzan" bezalako gaia jarri izan balute, merkatuko generoari edo baserriko egunerokotasunera mugatuko litzuzke.

Nik oso garbi zaukaat generoa hitzak ez duela emakumea eta horren ingurua adierazi nahi. Bide horri lotzen gatazkiok, ordea, oraindik ere. Gutxiengoaren konplexua duk hori, Unai.

Plazetan generoaren oreka mantentzearen edo desoreka hain nabarmena izan ez dadin deitzen zigutek oraindik ere, baina ni ez nauk emakumeen ordezkari sentitzen, ez behintzat ehuneko ehunetan.

Egia duk, hala ere, nik ere oholtza gainean zenbat emakume dauden erreparatzeari ekiten diodala oharkabean, eta ez hain oharkabean. "Emakume bertsolariren bat ere ekarri beharko diagu" bezalakoek antolatzaileren bilera baldintzatzen duten bitartean, gure horri erreparatu egingo zioagu.

Ai, Unai, femeninotasuna eta maskulinitasuna bezalako hitzak papereratzaren dizkidak. Nik mila bider entzun diat femeninoagoa izan beharko nukeela; goxoagoa. Zakarra izateak zergatik ez du femeninotasunarekin zerikusirik? Non eteten da soka? Gure izatean edo gure begiburuetan? Gizartearen kanon estilizatueta, agian? Nire bertsokera zakarra eta gordina izan daitekek batzuetan, goxoa eta sentibera beste askotan.

Hauskorra nauk, eta negartia, eta hunkibera. "Armadura kentzeko garaia heldu zain" belarrian danbada-ka ari zitzaidala agurtu gintuan aurreko hilabetean bertsotako adiskide bat eta ni. Emakumezkoa duk hori esan zidana. Umetatik ezagutzen naik. Masaileen muxu bat eta buruan bi astetarako zer pentsatua utzita joan zuan, ni baino lasaia ziurrenik.

Goxo eta niretik erantzuten saiatu nauk. Nire goxotik ere bai. •

Datozen bi astelehenetan jarraituko dute bi bertsolariak generoari buruzko euren hausnarketak plazaratzen. Unai Amaiaren kezkei erantzungo die eta alderantziz.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publikizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Ostiralean egingo da Mintzodromoa herrian

Gai ezberdinak jorratuko dira Jalgi tabernako terrazan jarriko diren mahaietan

Gai ezberdinei buruz eta euskaraz solasean aritzeko parada izan dugu hurrengo ostiralean. Izan ere, Mintzodromoa iritsiko da herrira.

Nahiz eta Solaskide programari amaiera ona emateko helburuarekin jaio den ekimena izan, antolatzaileek bertan parte hartzeko gonbita egiten diete herritar guztiei.

Aurrekariak

Donostian bi aldiz egin da esperientzia. Lehenengo Euskaren Egunean, abenduaren 3an, eta bestea, orain dela gutxi, Dokan. Oso harrera ona izan duenez, "Mintzodromoa gureru ekartzea pentsatu genuen" azaldu digute antolatzaileek.

Mintzodromoa ekimenak euskara ikasleak eta eskal hitzunik biltzen ditu, mahai baten inguruan, eseri eta hainbat gaien buruz hitz egiteko. Mahai bakoitzean gai bat proposatuko da. Helburua euskara ikasten saiatzen ari diren horiei hizkuntza horretan aritzeko erraztasunak eta euskaldunekin aritzeko aukera ematea da.

Herri edo leku bakoitzean bertako ezaugarriak hartzen ditu Mintzodromoa eta gure herrian ere horrela izango da.

15 minutura aldaketa

Lasarte-Orian antolatu den lehenengo Mintzodromoa Jalgi tabernaren terrazan burutuko da, datorren ostiralean, ekainaren 11n, arratsaldeko 18:00etan.

Guztira sei mahai izango



Irudian Bagera elkarteak Doka kafe-antokian antolatutako azken *Mintzodromoa*. Arg.: Irutxuloko hitza, Mikel Goñi.

ditugu, eta bakoitzean gai bat. Gainera, mahai bakoitzean "gai horren inguruan erreferentziako pertsona euskalduna izango dugu" adierazi digute antolakuntzakoek.

Biltzen den jendearen arabera antolatuko dituzte taldeak, hala ere, 15 minuturo gutxi gora behera mahaietara aldatu beharko da. Helburua gai ezberdinetan aritzea da "kontua ez da zer esaten den, baizik eta aritzea" gaineratu digute.

Parte hartzeko ez da inon izenik eman behar, ostiralean Jalgin agertzea nahikoa izango da. Solaskide edo euskaldun berriei begira antolatutako ekintza bada ere,

hortik pasatzen den orok, gaia entzun eta intereskoa badu "hurbildu eta eztabaidan murgiltzeko aukera izango du."

Tabernako gaiak

Gaiak aukeratuak dauden arren ez dituzte jakitera eman nahi antolatzaileek, bat-batekotasunari heldu nahi diote, "sorpresa izatea nahi dugu."

Hala ere, "gai korapilatsuak, iskanbilak sortu dezaketenenak saihestuko ditugu" azaldu digute. Lasai-lasai hitz egin daitezkeen gaiak aukeratu dituzte, "kafe bat hartzen hitz egin daitezkeen gaiak izango dira, tabernetan ohikoak diren gaiak baina bere puntutxua daukatena."

Mintzodromoaren funtsa, denak eroso eta ondo sentitzea izango da.

Amaiera ederra

Eztabaidan aritu eta gero, zer hobe afari eder bat egitea baino.

Kasu honetan, Solaskideen afaria da eta solaskideek eurek prestatutakoa. "Programa honetan badaude sukaldaritzan zaletutakoak eta hauek izango dira menuaz eta afariak arduratuko direnak" azaldu digute antolakuntzatik.

Lau pintxo ezberdin, entsalada epela, bakailao tortilla eta gazta tarta izango da menua. 15 euroren truke afari goxoa.

Beraz, Solaskide programakoa bazara eta afarira joateko interesa baduzu "Ttakin kultur elkartetik pasatzea baino ez duzu hilaren 8a, bihar, baino lehen" adierazi digute antolakuntzaileek.

Zeharkako helburua

Euskaldun berriak ikasten ari diren hizkuntzan aritzeko aukera izateaz aparte, ekintza honek badu zeharkako helburu bat "euskaldunak bilatzea" azaltzen dute antolatzaileek.

Solaskide programaz arduratzen direnak, zail dute euskaldunak bilatzeko, eta hauek oso garrantzitsuak dira programa aurrera joan dadin.

Euskaldun berriek edota euskalduntze prozesuan dabiltzanek "programa honen beharra dute" eta horren adibide argiena, "egun ditugun partaideen kopurua da: 80 solaskide" azaldu digute.

Egin zaite solaskide

Mintzodromoaren bitartez, Solaskide programak nola funtzionatzen duen ikustera gonbidatu nahi dituzte herritarrek. "Oso sinplea da eta argi ikusiko dute ostiralean" azaldu digute.

Euskaldunak euren denboraren zati txiki bat, ordu bete baino ez dute eskaini behar. "Horregatik, animatu nahiko genituzke haien denbora tarte txiki hori, behar dutenei eskaintzera," gaineratu digute.

Hurrengo ostiralean beraz, urtean zehar solaskide bilera horietan egiten dena ikusi ahal izango da Jalgi terraza-arratsaldeko 18:00etan. •



Diploma banaketarekin amaitu zuten ikasturtea 2. Batxilergokoek .-

Lasarte-Ursbil Institutuko 2. Batxilergoko ikasleek ostiralean eskuratu zituzten ikasketen amaierako diplomak. Diploma banaketa baino lehen, ikasleek azken hitzaldi teorikoa entzun zuten, Karlos Kortabarria Historia irakaslearen eskutik, Karlismoa eta eremuko gotorlekuak. Ostean, Batxilergoa bukatu duten 40 ikasleei diploma banatu zitzaizkien eta, horien artean, hiru ikasle, Maitane Gabilondo, Ainhoa Mangas eta Carlos Aizpuruak ohorezko matrikula izan zuten. •

Alkoholiko Anonimoek ateak irekiko dituzte 75. urteurrenean

75 urte igaro dira, Akroneko herrixkan, Ohion, Alkoholiko Anonimoen lehenengo taldea sortu zenetik.

Ekainaren 10ean, izan zen eta horregatik, munduan eta Estatuan zehar dauden taldeek urteurren hori ospatuko dute.

Ekitaldi instituzionala egingo da Gipuzkoako Batzar Nagusiko egoitzan Alkoholiko Anonimoen programa ezagutzera emateko.

Halaber, ate irekiak izango dira Alkoholiko Anonimoak biltzen diren egoitzetan. Gure herrian, aldiz, ekainaren 12an, larunbatean, bilduko dira ospakizun guztiak.

Jaialdia

Manuel Lekuona kultur etxean burutuko den jaialdian Alboka abesbatza, Zero Zette akordeoi taldea, Andoni Egaña bertsolaria eta antzerkia izango ditugu besteak beste. Baina hau arratsaldean izango da.

Goizean, Villa Mirentxun bileran egingo da familiakideekin, eta Alkoholiko Anonimoen elkarteak gonbidapena luzatu du goizeko zein arratsaldeko ekitaldietan parte har dezaten.

Goiza eta arratsalde artean ze hobe energiak berreskuratzeko baino. Horretarako Arreta jatetxera joko dute bazkari goxo batetaz gozatzeko. •

Aranza Arraga / Aisa egitasmoa irakaslea

‘Etorikinek euskara ikasteko duten gogoia eta desioa ikaragarriak dira’

Gure herriak etorikin ugari jaso ditu azken urteetan. Euren lurraldeak eta etxezueguren herria egiten dute satio. Kulturak, hizkuntza... ezberdina, diña dute berria. Lasarte-Orian immigrante gutxi bazeu harrera eta laguntza eskaintze-ko Esperanza Latina elkarteak sortu zen. Urte ugari dira, immi-granteak etxezueguren herri honen parte sentiarazteko lana egiten dutea. Gainera, orain dela bi hilabete beste pausu bat eman zuten. Aisa egitasmoa herria hurbildu. Eusko Jaurlaritzak habian jarritako proiektu honi esker, euskara onarri-oinarritako harrera-ikaslaroa eskaintzen zale. Euskal Herria etorrikin iritsi eta lehen kontaktu horretan behar-beharreko duten euskara ulertu eta erabiltzeko prestata.



Ikasle talde ona da Lasarte-Oriako Klasea. Hasi eta lanean hasen dira, denbora aprobetxatzen dute gusko.

ESKARO MORENO
 Nik bost aste egin ditut berriekin, eta oraindik hasi-pentan daude.
 Kurso baten behinuna ez da ikasleek euskara ikaste-ko pausua eman zuten. Denak ikasle izan zirela, baina, ingurero 4 ordu, eska-riaren oinarritzeko ezaguerak ikasten hasi dira. Orotara 60 ordu agurrak, familia izenak, erosketak egiteko oinarritzeko esamoldeak eskaraz ikasiko.

Zer da Aisa programa?
 Eusko Jaurlaritzak diruz lagun-tzen duen programa bat da, etorrikin zuzendutako eta 60 ordukoa. Eusko Jaurlaritzak materiala prestatu du, oinarrit-ko gauzak aurreratu dituen, im- migranteak euskarariki hitz harbitzen bat izan dezaten. Eta horien bidez, oinarritko iraka- sarak azaltzen zaizke.

Kursoa beste irakle batek hasi zuen, nola aurreratu du?
 Egia esan denbora gutxi zera- maen kursoan nik hartu nitza- nean. Buzuk ez zekien urte- agurrak ematen ere, eta beste batzuk nola-agurrak eta zen- bakak zekizkaten.

Kursoa asperrari ez egiteko, nola lantzen dituz?
 Klase dinamikoak egiten saia- tzen naiz. Materiala, kasu honetan, Donostia Urrats eskolagaitzak jartzen du. Uburriak, bideoak, era- bilzetan ditut. Gero behitugu jolasak ere, adibidez bingoa xelebreak dituzten jatazen

naiz, gainera. Hitzetan jarri, prestaterako orduan ere, ez baina modu didaktikoan. Euskalge- rriko irakasleek dena Lasarte-Oriako taldea Aisa egitasmoaren barruan lauga- rreko gurtza, eta hauek ahal dituela ikastera datoz.

Ikusi al duzu aurrerapenik hilaibete honetan?
 Oraindik oso gutxi, baina talde hau oso ona da, ondo asimilatzen dituzte gauzak, taldean elkar laguntzen dute, bati dago norbait manioso gogoia eta euren artean lagun- tzen dira.
 Gainera, kafea hartzeko tartea egiten dugunean giro ona sumatzen da. Latinoame- rikanak dira, eta dituzten bi- zirik oso antzekoak dira, beraz ordu ditorteko ezal- zio- den zerbait transmititzen ari naizela sentitzen dut, lasaigo ematen ditut ikasleak. Klaseak

Aisa taldekoen eta euskalte- gian dauden arteko jarra- ezberdina al da?
 Bai. Dudenik gabe, Nik Aisa- koekin nahiago dut. Ez naiz hain irakalaria, euren gaitasunak hurbilago sentitzen naiz. Dala- den zerbait transmititzen ari naizela sentitzen dut, lasaigo ematen ditut ikasleak. Klaseak

Zein ordu da klase dinami- koak jorratu?
 Euskarerikiko jarrera aldekoa indartzen da, guturago eto- ranantz jolas moduan ikusten dute ikasle hauek euskararen ikaskuntza. Eta momentuz, esan dezaket talde honetara jarrera ona daukela. Ingandeko gaitasunak dituzten dira, horre- kin dena esand dago.
 Euskarak dituzten gauza xelebreak azaltzen saiatzen

Klaseak asperrari ez egiteko, nola lantzen dituz?
 Klase dinamikoak egiten saia- tzen naiz. Materiala, kasu honetan, Donostia Urrats eskolagaitzak jartzen du. Uburriak, bideoak, era- bilzetan ditut. Gero behitugu jolasak ere, adibidez bingoa xelebreak dituzten jatazen

Tania eta Glena / Aisa egitasmoa irakasleak

‘Euskara ingelesa baino zailagoa da’

Esperanza Latina elkarteak izan zen euskarako klaseak Lasarte-Orian bultzatu zituen. Donostia Urrats eskolagaitzak, herriko elkarteekin batera martxan jarri zituen etorkinrentzako oinarritzeko klaseak. Glena Antiguon hartzen zituen klaseak, ‘Zergatik ez Lasarte-Orian?’ galde- u, Esperanza Latinako arduradunarekin harremanetan jarri eta dena prestatu zuten. Gainera, Danok Kide elkarteak lokala utzi die eta herriko Udalak dituzte lagundua.

Bost igande daromatzen euskararen ikasten, ebuluzorik?
 G: Momentu hauetan familia izenak ikasten gaude. Momentuz behimatz, agur- izen eta gure burua aurkezten dakigu.
Kontent zatorze?
 T: Hemen bakoitza bere kabuz dator, ikastea gustatzen zaigudalako.
Nola burutu zitezazun eus- kara ikasten hasteko?
 G: Oso garrantzitsua iru- ditzen zate, zure jatorria uzi eta beste lurraldeak batera zoztuzen berriko Kultur- a ezagutu nahi izata.

Herri hau hobeto ezagu- tzen saiatzen ari gara, eta zuekin harremanek errazteko zuen hizkuntza ikasten. Era berean, gure arteko lotura sor- tuzeko.
Uzta?
 G: Oso garrantzitsua da euskararen ikastea bai lanerako, baina bizitza sozialerako ere.
Zer induti zaizu euskar- a hiz- kuntza zaituz?
 Oso polita da, baina oso zaila. Gramatika zaila da, baina goxoak ditugunez, ika- siko dugu.

Uzta?
 G: Oso garrantzitsua da euskararen ikastea bai lanerako, baina bizitza sozialerako ere.
Zer induti zaizu euskar- a hiz- kuntza zaituz?
 Oso polita da, baina oso zaila. Gramatika zaila da, baina goxoak ditugunez, ika- siko dugu.
Kursoa amaitutakoan euska- lertu jateko asmorik?
 G: Niri pertsonalki euskara



Tania eta Glena ditugu iruditan. Eskubian, Glena, herrin Aisa egitasmoa bultzatu duen nikaragiarra



Krisiaren aurkako 2010 Plana
 100 milioi euro
Obra publikoak eta azpiegiturak
 Gipuzkoan badugu Plana: Inbertsio publikoa azkartzea, lurralde osoak ahalmen handiko bidetara ezin hobea izan dezan.
#GIPUZKOA
 zuzenb. @gipuzkoa

Euskara ikasi nahi? Aisarekin udan duzu aukera

Non didi norakoak
 Uztaletan 2tik 23ra bitartean izango da ikaslaroa. Egunean 4-orduko sasoak dute bere gain 9-00etan hasi eta eguerdiko 13-00etara eta astelehene- tik ostirala.

Noretzat
 16 urtekin gora baldin badituzu eta etorkin baxara zuretzat propio prestatu dago kursoa. Interesa baduzu ekainaren 1etik 18ra, Udala Euskalge- rriko idazkariara hurbildu beharko duzu. Edo bestela, 943 361 621 telefono zenbakirako idatzi. Euskara ikasi nahi baduzu, orain duzu aukera, eta gogora- rako don dala. •

Hasierekin arin
 Uztaletako proposamena, ika- sarako arin eta oinarritzeko da. Euskararen ikastea hasteko bako- koak ezagutzen dituzte bako- koak ikaslaroak.
 Euskaraz lehenengo gauzak ikastea aukera parega- bea da hau. Agurtzen ikasi, euskaraz erraz batzuk euskar- a ikasitakoak dira, nor zaren eta non bizi zaren adierazten... ikasi, euskaraz kontatzen... Lasarte-Oriako Udalak aukera eskaintu nahi ditu.

Gotzon Huegun Eskultorea

‘Munduan milaka eskultore gaude’

■ Camille Claudel-en omenezko XX Eskultura Jaialdian parte hartu du ■ Mundu osoko 25 lagunen artean finalista izan da ■ Bederatzi egunetan emakume baten irudia zizelkatu du

Alsazian, La Bresse izeneko herri menditsuan, izan da Gotzon Huegun, Lasarte-Oriako eskultorea, bederatzi egunetan, emakume baten irudia zizelkatzen, mundu osoko beste 24 eskultorerekin batera, eta ohorezko diploma jaso du gainera, epai-mahaikoek hiru lan onenen artean aukeratu baitute. Esperientzia, oroitza eta datorren urtean berriro jaialdira joateko gonbidapena ekarri ditu lasarteoriatarak.

JON ALTUNA

Niretzat erronka handia izan da eta ikusi dut gai izan naizela, denbora gutxian, lan handi bat egiteko" kontatu digu Gotzon Huegunek. Egurrean sekula egin duen lanik handiena egin du, harrian egin ditu handiagokak, baina tailerlean eta beste era batera, denbora gehiagorekin: "Sinposiumean ezin duzu goiz bat pentsatzen pasa, a tope ibili behar duzu". Lasarte-Oriako eskultoreak ez zuen ezki enbor hain handirik espero: "Zozketan, nire baina handiagoak ere bazueden, motozerrarik ez neukan eta banekien eskuz ezin nuela zortzi egunetan bukatu,..." Antolatzailerik ez zioten motozerra, elektrikoa. Ez dauka motordunak beste indar, baina moldatu zen Suitza eta Alemania muga ondoan, Estrasburgotik gertu, inguru menditsu batean dagoen La Bresse herrian.

Ohorezko diploma ekarri duzu, Camille Claudel-en omenezko XX Eskultura Jaialditik?

Bai. Camille Claudel XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako eskultorea, August Rodin eskultore ezagunaren maitalea zen. Hainbat ikerketen ondoren arte adituek ondorioztatu dute, Rodinen piezarik famatuena edo ikusgarrienak Camille Claudel-ek egiten zituela, eta gero Rodinek sinatu, garai haietan oraindik ez zelako saltsa hauetan emakumerik onartzen ezta emakumeek sozialki prestigioirik izatea. La Bressen, pasatzen zuen uda Claudel-ek bere familiarekin eta 20 urte daramatzate herri honetan Frantzia osoan bezala Camille Claudel-en izena nolabait bere lekuan jartzeko lanean.

Nik aurkeztu nuen proiektuak ildo hori jarraitzen zuen: bere omenez, bururatu zitzaizdan emakume baten eskultura egitea, baina, Camilek lantzen zuen itxura hiper-errealista baino, estilo kubista moderno-

agoa erabili nuen. Maketa bidali, antolatzailerik ez gertatu eta parte hartzeko gonbitea jaso nuen. Hara iritsi eta bi metro eta erdiko enbor bat jarri zidaten, maketa handian egiteko.

Ezki arbolaren enbor bat zen...

Bai hori da. Lehendabiziko bi egunetan gaizki pasa nuen: trenez joan nintzen, erreminta justuak eraman nituen, motozerrarik adibidez ez nuen eraman. Enborra ikusi nuenean behea jo nuen, uff! Gero motozerra bat lortu, bi egun oso pasa egurren arbastatzen eta hirugarren egunetik aurrera buelta eman nion, gozatzen hasi nintzen, aldamenekoekin hitz egiten, Lehenengo bi egunetan 25 partaideek lana besterik ez genuen egin, beste la, 9 egunetan ez dago horrelako eskultura bat bukatzeko denborarik. Burua altxa eta denak lanean ziren.

Hori polita da, sinposium hauek ofizioa duen jendearentzat dira. Gaur egun eskultura mailan asko diskurtsoa botatzen du, gero harri bat beste baten gainean jarri goxoki paper batean bildua eta hori da eskultura. Toki hauetan horrek ez du balio.

Artisauak elkartzan zarete, beraz...

Bai, ofizioa daukagunak eta 25 partaide ginen, mundu osokoak, japoniarra, bi afrikar, argentinarrak, kanadarrak, ukrainiarra, frantsesak, italiarrak, Alacantekoa,...

Gustura geratu al zinen egindako lanarekin?

Bai antolaketa eta giro oso ona egon zen. Jaialdiaren XX. mendeurrenako sari berezia emateko hiru proiektu aukeratu zituzten eta hiru horietatik bat nirena zen. Beraz, pozik. Batetik, finalistak erabakitzen zituztenak Parisetik joandako arte kritikoa zirelako, eta bestalde, sinposium batean lehen aldiz zailtasunei aurre egin behar izan nielako.



Gotzon Huegun Hernanin duen tailerlean, azkenaldian egurrean zizelkatu dituen lanetako batzuz inguratuta.



La Bressen saritutako eskulturarekin.

Zer moduzko maila izan zen?

Harrituta nago maila altua zegoelako, italiarrak teknikoki oso onak ziren. Zein maila emateko gai nintzen ikustea zen niretzat erronka; finalista izan nintzen, askok zoriandu ninduen eta hurrengo urterako gonbidatu naute, beraz maila majoa erakutsi dut.

Sinposium-ek zer dute intergarri?

Urtero edo bi urtean behin bat egiten saiatzen naiz, saltsa hori gustatzen zait, ona da ezagutzea. Japoniako eskultoreak 65 urte zeuzkan eta oso aberasgarria da nola lan egiten

duen ikustea; italiarrek ezagutzen ez nituen erreminta batzuk zituzten...

Asko aurkezten al zarete sinposium-etara?

Esan ziguten 120 aurkeztu ginelako eta horietatik 25 aukeratu gintuzten. Konturatu naiz munduan milaka eta milaka eskultore gaudela.

Tailerlean emakumeen eskultura asko gordetzen dituzu...

Neolitiko garaian Europa osoan eta konkretuki Euskal Herrian lantzen zen eskultura da nire ardatzetako bat. Orduan emakumeek antolatzen zuten gizartea, eta erabakiak hartu, beti ere, taldearen mesedetan. Estetikoki ere erakargarriak dira erabiltzen zituzten bolumenak, gizonen gorputzak ematen ez dizkidan bolumen horiek beste indar bat daukate; marmolean egin ditut gizonen eskulturrak baina, emakumeek beste borobiltasun batzuek egokiak.

Iruditzen zait feminitate edo emetasunak presentzia handia duela zure lanean?

Esaten didate, zenbat emakume!... Nire ustez, gizartean beharrezkoak ditugu nolabait feminitatea eta bere baloreak.

Beste proiekturik ba al duzu?

Badauzkat proiektu batzuk baina oraindik berde xamar daude, agintarien borondatearen esku: bat Kanadan XVI-XVII. mendean joan ziren euskal arrantzaleen omenezko monolito antzekoa egitea da; beste bat, Lasarte-Orian etxe multzo berri baten lorategian eskultura bat jartzeko eta Murchantzen eskultura bat egiteko lehiaketan ere hartu dut parte. Hala ere, hirietako eskulturrak oso motel joaten dira, Hernaniko Zinkoeneakoa atera arte bi urte pasa ziren.

Azkaraten ere tailerra duzu,...

Gehiago egoten naiz Hernanin, espazioa daukat, orain hemen dago nire txokoa. Asteburuetan joaten naiz hara eta ezin dut egiten ditudan piezak kargatu eta batetik bestera eramaten ibili. Eromena litzateke. Baina nire asmoa behin edo behin Azkaratera joatea da.

Patrizio Madozetaz gogoratu zara Frantziatik bueltan, ezta?

Bai etorri, eta amak esan zidan nire lehen maisu izan zena hil dela. Bere etxean erakusten zidan, emaztea eta seme-alabak ezagutzen ditut eta iruditzen zait aipamena merezi duela. Egur tailugile profesionala zen, teknika klasikoak lantzen zuen, bolutak, loreak, mahats-hostoak, berarekin konturatu nintzen hau zein ederra den. Gero, nekatuta zebilela, berarekin askoz gehiago ez nuela ikasiko eta beste maisu batengana bidali ninduen. •

“ Saiatzen naiz urtero, edo bi urtean behin, sinposium batera joaten. Saltsa gustatzen zait, ona da ezagutzea.

Elkarrizketa osoa www.txintxarri.info web orrialdean

Egunero

Erakusketa

MUNDU BAT, MILAKA AURPEGI, Aitzol Etxegoien lasarteoriatarren argazki erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Erakusketa

JOSE MANUEL MONGEREN ikasleen margoak ikusgai izango dira Kulturetxean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

Asteartea, 8

Hitzaldia

ZIGORTZEA BEHARREZKOA AL DA HEZTEKO? hitzaldia eskainiko du Enkarni Gomezek Udalarren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ.



Euskal kanten bertsoiak funky eta folk kutsuarekin

Jefferson Rose eta Gorka Lasa-ren hartu-emanak erditutakoa Bartzelonatik dator: erro amerikarrak euskal izpiritua-rekin elkartuta sortzen duten "funky-Folk" deritzoguna. Euskal kanten bertsoiak ("maitasunez hil"adibidez), Kuba zaharreko abestiak, Rumbaren bat...

OSTIRALEAN, HILAREN 11N
KULTURETXEAN 18:00ETAN
GAZTELANIAZ

Larunbata, 12

Ekitaldia

ALKOHOLIKO ANONIMOEN ELKARTEAREN 75. URTEURRENA ospatzeko ekitaldian hainbat taldek hartuko dute parte: emanaldia eskainiko dute Alboka abesbatzak eta Zero Zette akordeoi taldeak, Andoni Egaña bertso-laria bertso batzuk kantatuko ditu eta antzerki ikuskizuna eskainiko da, besteak beste. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:30ean.

Asteartea, 15

Kontzertua

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK ikas-turte amaierako emanaldia eskainiko dute. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 17

Kontzertua

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK emanaldia eskainiko dute. Manuel Lekuona Kulturetxean, 19:00etan.

Ostirala, 18

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO ETXE ZAHARREN MAKETEN ERAKUSKETA *Patxi Altuna Iruretagoienaren* eskutik. Manuel Lekuona Kulturetxean, egunero ekainaren 18tik aurrera arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

Ipuin-kontalaria

PASAIA MUSIKAL izeneko ipuin musikala eskainiko da etxeko txiki eta gaztetxoentzat. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Ostirala, 25

Dantza

ERKETE DANTZA TALDEAREN San Pedroetako dantza emanaldia. Manuel Lekuona kulturetxean, 22:00etan. Sarrera doan izango da.

Kontzertua

ORENDIK (Funk, rock) eta LAUROBA (Pop rock) musika taldeen emanaldia. Jalgi kafe-antzokian, gaueko 23:00etan.



Manuel Lekuona kulturetxea

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era
Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Sorgin Dantzaren entseguak
Urtero bezala, Ttakunek San Pedro jaietan antolatzen duen Sorgin Dantzan parte hartzerko entseguak antolatu dira ekainaren 8an hasita, astearte eta ostegunetan 20:00etan Landaberri BHLn.

Calatayud-eko Harritzko monastegira txangoa

Maria Auxiliadora elkarteko kideek ekainaren 20ean txangoa antolatu dute Calatayud-eko Harritzko monastegira txangoa. Autobusa Txartel hoteletik aterako da goizeko 7:00etan. Prezioa 30 euro dira eta monastegirako sarrera ez dago bane. Informazio gehiago edo izena emateko, 943 363 675 edo 943 360 042 zenbakietara deitu behar du gaueko 21:00tik 22:00etara.

Txakurrak askatzeko parkea

Hainbat herritarrek udalari proposamen bat luzatu diote txakurrek bere beharrak egiteko eta lasai askatu ahal izateko parke bat egokitu dezan. Horretarako herritarren sinadurak bildu behar dituzte. Interesa duzuenok Lasarte

Albaitaritza klinikan, Zoomania dendan, Buenetxea tabernan eta Akeita tabernan dituzue orriak sinatzeko.

Batxilergoako titulua

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2009an ikasketak bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, beste-lan nortasun agiriaren fotokopiarakin jaso daiteke ere.

Txokotako bilerak

Udako Txokotan parte hartuko duten haurren gurasoentzako bilerak ekainan izango dira. 2005 eta 2007 bitartean jaiotako bilerak ekainaren 10 izango da, 17:00etan euskaraz eta 17:45ean gaztelaniaz. 2002 eta 2004 bitartean jaiotakoek ekainaren 10ean dute ere, 18:30ean euskaraz eta 19:15ean gaztelaniaz. 1998 eta 2001 bitartean jaiotakoek berriz, ekainaren 11n dute bilera, 17:00etan euskaraz eta 17:30ean gaztelaniaz. Abuzturako izena eman dutenek berriz, ekainaren 11n arratsaldeko 19:00etan dute bilera.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainei bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, belarritako beltza eta doratua, bi betaurreko graduatu, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta bi baloi.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte.

Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinen.

Errugby eskolako antolatzailerak Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

Ostadarreko entrenamenduak

Ostadar hurrengo denboraldia prestatzen hasi da eta hurrengo entrenamenduen deialdia egin du datorren asterako Michelinen: alebinak, 1999.an jaiok, ekainak 9an, asteazkenean, 17:30ean; Infantil mutilak 1997. eta 1998. urteetan jaiok, ekainak 8an, asteartean, eta ekainak 10an, ostegunetan, 17:30ean; infantil neska 1997. eta 1998. urteetan jaiok, Ostaderreko egoitzan izena eman behar dute; kadete mutilak 1996. eta 1995. urteetan jaiok, ekainak 8an, asteartean, eta ekainak 10an, ostegunetan, 18:45ean; kadete neska 1996. eta 1995. urteetan jaiok, ekainak 9an, asteazkenean, eta ekainak 11n, ostiralean, 18:45ean; jubenil mutilak 1994, 1993 eta 1992. urteetan jaiok, gaur, astelehena, eta ekainak 11n, ostiralean, 17:30ean; erregional neska, 1994.an jaiok edo helduagoak, ekainak 8an, asteartean eta ekainak 10ean, ostegunetan, 20:00etan.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri **T X I N T X A R R I a l d i z k a r r i a**. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbide elektronikora bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Espontaneo, Muña eta Maiaren arteko bertso umoretsuak,... bertso saio animatua Zabaletakoa. Saioaren amaieran auzo-elkartekoek Maialeni oparia egin zioten, Teresa Sorginaren taila.

Teresa Sorgina joan da, amaiatu dira jaiak

TXINTXARRI

Teresa Sorginak hiru egunez, Zabaleta auzoa bere etxe bihurtu du. Ostiralean iritsi zen eta harekin batera, auzoko jaiak etxeko txiki eta helduentzako milaka ekintza ekarri zituen.

Ostirala gauean, *Montexio* eta *Xumela* abesbatzek giro-tako kantu afaria egon zen.

Kantuaren ostean, *Dantzaz blai!* ikuskizunaren zati batzuek gozatzeko aukera egon zen. Eta, hau ikusi ostean, gorputza mugitzeko gogoekin geratu zirenek dantzaldia izan zuten.

Larunbatean, Joxe Migel Aranzadiren omenezko eskoba eta mus txapelketa lehiatuziren. Eskoban, Ramoni eta Eugenik irabazi zuten eta musean, berriz, Mikel eta Aitzol gazteek.

Haurrentzako aparra festa

egin zen, nahiz eta arratsaldean hoztu zuen eta ostean, mitologia pixka bat ikasi zuten haurrek *Galtzagorrieto*, *Inaxito* antzerkiari esker.

Helduentzako eta haurrentzako herri kirolak eta afaria egin ziren bertso saioa baino lehen.

Euria protagonista

Xirimiria egin zuen ia bertso saio guztian zehar, hala ere ikusleak tinko mantendu eta Andoni Otamendik zuzendutako, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Amaia Agirre eta Unai Muñoaren saio ederra eta pikantea.

Eurovisionen antzera, espontaneo egon zen, Joxe Mari Agirretxe igo baitzen oholtzara Unai eta Amaiarekin bertso batzuk kantatzera.

Ostean gautxoriek, eguraldiaz ahaztu eta Sortuz, Aritz

Sound System eta diskotekaz gozatu zuten goizeko lauak arte.

Igande goizean, berriz, gaurbel esnatu zen eguna. Hala ere, ez zuen euririk egin eta arazorik gabe bururtu ziren goizeko ekintzak, auzo garbiketa, Landaberri ikastolako gaztetxoek euskal dantzak, entzierroa...

Eta ohitura denez, proba mixtoa. Tellerigaina, auzoko gazteak, Larrekoetxe/Ostadar eta Erkide taldeek gogor ekin zioten lanari, trontza, txingak, lokotsa biltzea eta lasterketa. Auzoko gazteek irabazi zuten aurtengoan, 11m eta 50sg-ko denborarekin.

Aspertzeko astirik ez, presoan aldeko kalejira, bazkari herrikoia... Tamalez, gauean Teresa Sorginari urte betez agur esan behar izan zioten Zabaletako auzotarrak. •



Larunbata arratsaldean, umeek antzerkia ikusten zuten bitartean, gurasoek, Reala eta Cadiz-en arteko partida.



Igande goizeko proba mistoan, gogor aritu ziren guztiak, baina auzoko gazteek lortu zuten garaipena.



Umeek gozatu dituzte jaiak. Jolasak, antzerkiak eta entzierroak izan dituzte ia egunero.